

Gurutze Gorriko Gazteria

Bi urte barru 30. urteurrena ospatuko du talde honek eta erronka berriei heltzeko gogotsu daude bere kideak: ikastaroak, asteburuko irteerak eta udalekuak, besteak beste. Laster, lokal berria izango dute San Pelaion.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1982. urtean Ermuko Gurutze Gorria sortu zen. Gazteria taldea urte berean edo urtebete beranduago jaio zen, beraz, hasieratik martxan dagoela esan daiteke. Kontuan izan behar da gaur egun aisialdirako talde dezente dagoela eta hainbat ekimen antolatzen direla, baina garai horretan ez zegoen hainbeste aukera.

- Zenbat kide zarete?

10 begirale ditugu, tartean ermuarak eta eibartarrak, koordinatzaile bat eta zuzendari bat. Hala ere, antolatzen ditugun ekintzak ez dira itxiak eta Gurutze Gorriko gainontzeko boluntarioak, gurasoak edo beste norbaitek laguntzeko prest badago, ez dugu inongo arazorik.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Antolatzen ditugun ekimenak antolatuta, gure helburuak Gurutze Gorria-



ren helburuekin bat datoz: sentsibilizazioa, borondatezko lana eta kooperazioa, besteak beste.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Hilean behin biltzen ahalegintzen gara eta boluntarioak ikasleak direnez, ostiral arratsaldetan edo larunbat goizetan izaten dira gure batzarrak. Orain arte gure egoitzan bildu izan gara (autobideko ordainlekuaren ondoan), baina laster lokal berria izango dugu, San Pelaion. Honi esker, bilerak egin eta ekimen gehiago martxan jarri ahal izango ditugu: asteburuko irteerak eta udalekuak, esaterako.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten

dituzue?

Gabonetan jostailuak jasotzeko kanpaina egiten dugu, Ermua, Mallabia eta Eibarko Udalen laguntzarekin. Honi esker, seme-alabak izan eta langabezian edo premia bereziarekin dauden familiei, jostailuak ematen dizkiegu. Gainera, Umeen Gabonetako Parkea antolatzeaz arduratzen gara. Horrez gain, tailerrak antolatzen ditugu eta denbora gutxi barru begirale titulu eskuratzeko ikastaroa egingo dute gure begiraleek.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Interesa duenak 943 176248 telefonora dei dezake.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

YHCHN CERVECERIA

ZYTİK

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereztasuna

943 17 39 78